



***BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO  
ORGANISMO AUTONOMO ETA  
SOZIETATE PUBLIKOAK***

***2024KO ABENDUAREN 3IKO URTEKO KONTU BATERATUAK  
IKUSKARITZA TXOSTENAREKIN BATERA***



***BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO  
ORGANISMO AUTONOMO ETA  
SOZIETATE PUBLIKOAK***

***2024KO ABENDUAREN 3IKO URTEKO KONTU BATERATUEN  
IKUSKARITZA TXOSTENA***



## BASAURIKO UDALEKO 2024. URTEKO KONTU BATERATUEI BURUZKO IKUSKARITZA TXOSTENA

---

BASAURIKO UDALEKO Kontu-hartzaileari:

### **Iritzia salbuespenekin**

Hartutako mandatuaren arabera, BASAURIKO UDALAREN (Udala aurrerantzean) eta haren mendeko “UDAL KULTUR ETXEA”, “KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA”, “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” eta “UDALAREN LAGUNTZA KOMUNITARIOKO ZENTRO ETA AUTONOMIA PERTSONALERAKO EGOITZA” organismo autonomoen eta “BASAURI –ETXEBARRI BEHARGINTZA, S.L.” eta “BIDEBI-BASAURI, S.L.” (Erakundea edo Taldea aurrerantzean) sozietate publikoen urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2024ko abenduaren 31ko balantzeak, ondare-emaitza ekonomikoaren kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak eta memoriak, guztiak bateratuak, osatzen dituzte.

Gure iritziz, gure txosteneko *Iritzia salbuespenekin emateko oinarria* atalean deskribatutako gaiak izan ditzaketen eraginengatik, gai hauen eraginengatik eta zifra konparatiboetan izan duten eraginengatik izan ezik, erantsitako urteko kontu bateratuek, arlo esanguratsu guztietan, 2024ko abenduaren 31n Erakundearen ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena eta aurrekontu kitapenarena ere, guzti hauek bateratuak, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriako 4.atalean identifikatzen dena eta aurrekontu mugatua duten entitateen kasuan Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezarritakoa delarik. Bestaldetik, mendeko sozietate publikoek azaroaren 16ko 1514/2007 Errege-Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren arabera eta legezko xedapenek derrigorrezten dituzten kontabilitate gaien arabera aurkezten dituzte beraien urteko kontuak), eta bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate eta aurrekontu printzipio eta arauekin.

### **Iritzia salbuespenekin emateko oinarria**

Txosten honen datan, ondorengoengandik ezin izan dugu egindako baieztapen eskaeraren erantzuna jaso:

- a) Udalaren sei hartzekodun, 2024ko abenduaren 31ko zorraren osaerari eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldian Udalarekin izandako eragiketa-bolumenari dagokienez.
- b) Ekitaldian Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten lau abokatu eta bat Egoitzarekin, erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen obligazio osoei edo pasibo kontingenteei dagokienez.



- c) Energiaren Euskal Erakundeak 2024an zehar Udalar bere aurrekontuaren kargura egindako ordainketei dagokienez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Kultura Patronatuari egiaztatutako ordainketei dagokienez.
- d) Udalak 2024ko ekitaldian diru-laguntzak eman dizkien sei erakunde edota elkarte, euren aurrekontuetan kitatitako eskubideen aitortunei buruz, burututako kobraketei buruz eta 2024ko abenduaren 31n Udalak ordaintzeke zuen zorrari dagokienez.

Gainera, gure lanean zehar, aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orri bateratuen barne hartu beharko liratekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta 2024ko ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratuan, diruzaintzako gerakin bateratuan gastu orokorretarako eta 2024ko abenduaren 31ko balantze bateratuan:

- Zenbatekoak milaka eurotan -

Kontzeptua	2024 Ekitaldia							
	Diruzaintza gerakina	Aurrek, emaitza	Aktibo ez korrontea	Aktibo korrontea	Pasiboa	Ekitaldiko emaitza	Jasotako diru-laguntzak emaitzetara egozteko zain	Gainontzeko ondare garbia
<b>UDALA</b>								
Bikoiztuta erregistratutako ibilgetu-elementua	-	-	(94)	-	-	-	-	(94)
4. hiruhilekoko zabor-bilketako, estolderia-zerbitzuko eta ur-hornidurako diru-sararren aintzatestea, ekitaldi desegokian.	-	-	-	1.316	-	110	-	1.206 (*)
Ekitaldi itxieran aitortu ez diren eta ekitaldiari dagokion estatuko eta probintziako JEGZren likidazioak.	163	5	-	163	-	5	-	158 (*)
"Hornidura-enpresen okupazio-tasak" (310.683 2024an eta 353.505 2023an) eta udal-zergak eta bestelako tasak (35.883 2023an) direla-eta ekitaldi desegokian (hurrengoan) dauden diru-sararren erregistroak.	-	-	-	310	-	(79)	-	389 (*)
Ekitaldiari dagokien baina itxiera datan aitortu ez diren obligazioak:								
- Su itzaltze foru zerbitzuko ekarpenaren kitapena.	(456)	(11)	-	-	456	(11)	-	(445) (*)
- Lehen mailako sareko ur-hornidura. Abendua.	(121)	(7)	-	-	121	(7)	-	(114) (*)
- Basauriko Gabonetako argiak	-	49	-	-	-	49	-	(49) (*)
- Foruak eta Kareaga Goikoa kaleetako igogailu publikoaren ziurtagiriak	-	255	-	-	-	255	-	(255) (*)
Aurreko ekitaldietatik datozen eta 2015eko ekitaldiko emaitzen kontuan egindako saldoak erregularizatzea Lurzoruaren Udal Ondarea epigrafean.	-	-	159	-	-	-	-	159 (*)



Kontzeptua	2024 Ekitaldia								
	Diruzaintza gerakina	Aurrek, emaitza	Aktibo ez korrontea	Aktibo korrontea	Pasiboa	Ekitaldiko emaiza	Jasotako diru- laguntzak emaitzetara egozteko zain	Gainontzeko ondare garbia	
2016an jasotako eta ekitaldi horretako emaitzari egotzitako ibilgetua finantzatzeko dirulaguntzak, eskuratutako ondasunen amortizazioan oinarrituta egotzi beharrean.	-	-	-	-	-	11	545	(556)	(*)
Bizkaiko Foru Aldundiak emandako eta ekitaldiaren amaieran aitortu gabeko diru-laguntzak:									
- 23.12.31	-	(422)	-	-	-	(422)	-	422	
- 24.12.31	330	330	-	330	-	330	-		
Itxierako balantzearen "Hartzekodunak" epigrafean erregistratutako eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuan erregistratutako gastuak eta inbertsioak	(229)	170	-	-	-	-	-	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>(313)</b>	<b>369</b>	<b>65</b>	<b>2.119</b>	<b>577</b>	<b>241</b>	<b>545</b>	<b>821</b>	

(\*) Udalaren eta haren mendeko erakundeen 2023ko ekitaldiko urteko kontu bateratuei buruz dugun auditoretza-irizkiak ere salbuespen bat jaso zuen gertakari horietako bakoitzeko.

Era berean, 2024ko ekitaldian, Erakundeak 888 mila euroko zenbatekoa aktibatu du erantsitako balantze bateratuko "Ibilgetu materiala" epigrafean, Bolintxu-Mercabilbao inguruan, Nerbioi ibaiaren gaineko oinezkoentzako pasabideari dagokionez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak sustatuta. Zenbateko hori jatorrizko proiektuaren exekuzio materialerako aurrekontuarekin bat dator, ez zen mugatzen pasabidera soilik, eta zeharkako kostuak eta zerga egozgarriak ez zituen barne hartzen. Era berean, kontabilitate-erregistro horretan ez da kontuan hartu elementuari alta eman behar zitzaion unetik kontabilizatu behar ziren amortizazioen eragina. Ondorioz, erantsitako 2024ko abenduaren 31ko balantze bateratuko "Ibilgetu materiala" epigrafeko 2023 eta 2024 ekitaldietako saldoak 494 eta 412 mila eurotan gutxietsita eta gainbaloratuta daude, hurrenez hurren, eta bi ekitaldietako emaitzak 18 mila eurotan daude.

Bestalde, 2023ko ekitaldian Udalak ez zuen erregistratu ekitaldi horri dagokion Udalkutxaren behin betiko likidazioaren zati bat. Honek, salbuespen bat eragin zuen urte hartako gure ikuskaritza-txostean, 234 mila eurotan gutxietsita baitzeuden "Epe laburreko zordunak" eta "Entitate nagusiari egotzitako ekitaldiko emaitza" epigrafeak. 2024ko abenduaren 31ko gure kontu-ikuskaritzako iritzia ere salbuespenezko iritzia da, gertaera horrek egungo saldoen eta aurrekoaren saldoen arteko konparagarritasunean duen eragina dela eta.

Ikuskaritza lana, Espainiako Sektore Publikoarentzat indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko Kontu Bateratuen Ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna* atalean zehazten da.



Erakundearekiko independenteak gara, Espainiako sektore publikorako urteko kontu kontsolidatuen gure auditoretzari aplikagarriak zaizkion etikaren eta independentziaren babesaren eskakizunen arabera, sektore publiko horren kontu-auditoretzaren jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia salbuespenekin emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

### **Ikuskaritzaren gako nagusiak**

Ikuskaritzaren gako nagusiak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontu bateratuen gure ikuskaritzan adierazgarriak izan diren gaiak dira. Gai hauek kontuan izan dira urteko kontu bateratuak bere osotasunean hartuz egindako gure auditoretzaren testuinguruan baita hauei buruz osatutako gure iritzian ere, eta ez dugu gai hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Iritzia salbuespenekin emateko oinarria atalean deskribatutakoagatik izan ezik, ikuskaritza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen bestelako gako nagusirik ez daudela zehaztu dugu.

### **Urteko kontu bateratuen inguruan, Kontu-hartzailearen erantzukizuna**

Kontu-hartzailearen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu bateratuen formulazioa, Erakundearen (edo Taldearen) ondarearen, egoera finantzarioaren, emaitzen eta aurrekontu bateratu betetzearen irudi fidela adieraziz, erakundeari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu bateratuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Kontu-hartzaileak Erakundeak kudeaketa jarraituaren printzipioaren arabera jarraitzeko duen gaitasuna baloratzeko erantzukizuna du, kudeaketa jarraituarekin zerikusia duten gaiak azalduz, eta kudeaketa jarraituaren kontabilitate-printzipioa erabiliz. Salbuespena izango da kontu-hartzaileak Erakundeak likidatzeko edo bere eragiketarako eteteko legezko asmoa edo betebeharra duenean edo beste aukera errealistarak ez dagoenean.

### **Urteko kontu bateratuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna**

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu bateratuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainiako Sektore Publikoarentzat indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu



- 5 -

bateratuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Ikuskaritza-txosten honen I. eranskinean zehatzago deskribatzen dira urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan ditugun erantzukizunak. Deskribapen hori, 6. eta 7. orrialdeetan biltzen dena, gure ikuskaritza-txostenaren barruan dago.

Bilbon, 2025eko urriaren 3an

**Betean Auditoría, S.L.P.**

José Ignacio Miguel Salvador



### **Urteko kontu bateratuen ikuskaritzari buruzko txostenaren I. eranskina**

Ikuskaritza-txostenean adierazitakoaz gainera, eranskin honetan sartu ditugu urteko kontu bateratuen ikuskaritzarekiko ditugun ardurak.

### **Urteko kontu bateratuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna**

Espainiako Sektore Publikoarentzat indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu bateratuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurrerengatik gerta daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arazoigarritasuna eta kontu-hartzaileak emandako informazioa ere.
- Kontu-hartzaileak kudeaketa jarraituaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duen ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen entitate bezala jarraitzeko Erakundeak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu bateratuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzialdatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Erakundeak funtzionamenduan dagoen erakundea izateari utz diezaiolke.
- Urteko kontu bateratuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu bateratuen transakzio eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko Kontu-hartzailearekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikaturako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.



- 7 -

Erakundeko Kontu-hartzaileari jakinarazi dizkiogun gaien artean, egungo urteko kontu bateratuen ikuskaritzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, ikuskaritzaren gako nagusienak.



***BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO  
ORGANISMO AUTONOMO ETA  
SOZIJETATE PUBLIKOAK***

***2024KO ABENDUAREN 31KO  
URTEKO KONTU BATERATUAK***

# **BASAURIKO UDALA**

**2024ko ekitaldiko kontu bateratuak**

**BASAURIKO UDALA**  
**Balantze bateratua, 2024ko abenduak 31**  
(milaka eurotan adierazita)

<b>AKTIBOA</b>	<b>Oharrak</b>	<b>2024</b>	<b>2023</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>Oharrak</b>	<b>2024</b>	<b>2023</b>
<b>A) <u>Aktibo ez-korrontea</u></b>		<b>159.500</b>	<b>150.825</b>	<b>A) <u>Ondare garbia</u></b>		<b>192.652</b>	<b>184.580</b>
I. Ibilgetu ukiezina	14 d	3.786	2.328	I. Ondarea	14 h	36.427	36.427
II. Ibilgetu materiala	14 a	137.988	134.579	II. Sortutako ondarea:	14 h	152.282	144.414
III. Higiezinetakoko inbertsioak	14 c	6.590	6.735	1. Erreserbak eta aurreko ekitaldietako emaitzak		145.776	132.255
IV. Lurzoruaren ondare publikoa	14 b	10.448	6.490	2. Entitate nagusiari egotzitako ekitaldiko emaitzak		6.506	12.159
V. Epe luzeko finantza inbertsioak	16	600	629	IV. Egotzi gabeko dirulaguntzak	14 h	3.943	3.739
VI. Zordunak eta epe luzera kobratu beharreko beste kontu batzuk	16	88	64	<b>B) <u>Pasibo ez-korrontea</u></b>		<b>1.211</b>	<b>1.615</b>
				II. Epe luzeko zorrak	16	1.211	1.615
<b>B) <u>Aktibo korrontea</u></b>		<b>46.411</b>	<b>45.098</b>	<b>C) <u>Pasibo korrontea</u></b>		<b>12.048</b>	<b>9.728</b>
III. Epe laburreko zordunak	14 e	4.800	5.086	III. Epe laburreko zorrak	16	1.939	1.937
V. Epe laburreko finantza inbertsioak	16	139	96	V. Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste kontu batzuk	14 g	10.109	7.791
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	14 f	41.472	39.916				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA (A+B)</b>		<b>205.911</b>	<b>195.923</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+B+C)</b>		<b>205.911</b>	<b>195.923</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2024ko ekitaldiko ondare-emaiza ekonomiko bateratuaren kontua**  
(milaka eurotan adierazita)

	Notas	2024	2023
<b>1. Zerga eta hirigintza arloko diru sarrerak:</b>		<b>26.638</b>	<b>25.164</b>
a) Zerga arloko diru sarrerak		26.314	25.098
b) Hirigintza arloko diru sarrerak		324	65
<b>2. Jasotako transferentzia eta diru laguntzak:</b>		<b>38.039</b>	<b>36.153</b>
a) Ekitaldikoak		36.232	34.369
b) Ibilgetu ez-finantzarioarako dirulaguntzen egozpena		65	102
c) Aktibo korranteetarako eta beste batzuetarako dirulaguntzen egozpena		1.742	1.682
<b>7. Kudeaketa arrunteko beste diru sarrera batzuk</b>		<b>725</b>	<b>657</b>
<b>A) Kudeaketa arrunteko diru sarrerak, guztira</b>		<b>65.402</b>	<b>61.974</b>
<b>9. Langileen gastuak</b>		<b>(25.798)</b>	<b>(24.405)</b>
<b>10. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak</b>		<b>(4.241)</b>	<b>(4.773)</b>
<b>11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk</b>		<b>(26.474)</b>	<b>(25.778)</b>
<b>12. Ibilgetuaren amortizazioa</b>		<b>(3.758)</b>	<b>(3.438)</b>
<b>B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira</b>		<b>(60.271)</b>	<b>(58.394)</b>
<b>I. Kudeaketa arruntaren emaitza (A + B)</b>		<b>5.131</b>	<b>3.580</b>
Ibilgetu ez-finantzarioaren emaitza eta beste partida batzuk		706	8.829
<b>II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza</b>		<b>5.837</b>	<b>12.409</b>
<b>III. Finantza eragiketen emaitza</b>		<b>698</b>	<b>(338)</b>
<b>26. Baliokidetzan jarritako entitateen emaitzetan dagoen partaidetza</b>		<b>(29)</b>	<b>88</b>
<b>VI. Ekitaldiko emaitza (aurrezki) bateratua</b>		<b>6.506</b>	<b>6.506</b>
<i>Entitate nagusiari egotzitako emaitza</i>		<i>6.506</i>	<i>12.159</i>

**BASAURIKO UDALA**  
Ondare garbia: bateratutako aldaketa guztien 2024ko ekitaldiaren egoera-orria  
(milaka eurotan adierazita)

1. ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA ORRIA	Oharrak	Ondarea	Sortutako ondarea	Balio aldaketan doikuntzak	Jasotako subentzioak	Guztira
<b>A. Ondare garbia 2023ko ekitaldi amaieran</b>		36.427	144.414	0	3.739	184.580
<b>B. Akats-zuzenketa eta irizpide-aldaketan doikuntzak</b>	14 h	0	493	0	0	493
<b>C. 2024ko ekitaldi hasierako ondare garbi doitua</b>		36.427	144.907	0	3.739	185.073
<b>D. 2024ko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketak:</b>		0	7.375	0	204	7.579
1. Ekitaldian aintzatetsitako diru-sarrerak eta gastuak	14.b		6.506		204	6.710
3. Ondare garbiaren bestelako aldaketak	14 b		869			869
<b>E. Ondare garbia, 2024ko ekitaldi amaieran</b>		36.427	152.282	0	3.943	192.652

2. AINTZATETSITAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA	Oharrak	2024	2023
I. Ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomiko bateratua		6.506	12.159
II. Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta diru-sarrerak		2.011	2.058
III. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura eta estalitako partiden hasierako baliora egindako		(1.807)	(1.784)
<b>IV. Aintzatetsitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira</b>		<b>6.710</b>	<b>12.433</b>

**BASAURIJO UDALA**  
**2024 ekitaldiko diru-fluxu bateratuen egoera-orria**  
(milaka eurotan adierazita)

Kontzeptua	2024	2023
<b>I. Gestio-jardueren diru-fluxuak:</b>		
A) Globalki integratutako entitateen kobrantzak	85.763	77.547
B) Globalki integratutako entitateen ordainketak	(76.041)	(69.979)
<b>II. Inbertsio-jardueren diru-fluxuak:</b>		
G) Globalki integratutako entitateen kobrantzak	506	9.626
H) Globalki integratutako entitateen ordainketak	(10.082)	(6.645)
<b>III. Finantziario-jardueretako diru-fluxuak:</b>		
M) Globalki integratutako entitateen kobrantzak	0	0
N) Globalki integratutako entitateen ordainketak	(404)	(404)
<b>IV. Sailkatzeko dauden diru-fluxuak: aurrekontuz kanpoko kontzeptuak eta aplikatu gabekoak</b>		
Y) Globalki integratutako entitateen kobrantzak	6.911	5.001
Z) Globalki integratutako entitateen ordainketak	(5.098)	(5.088)
<b>Diru kopuruaren handitze/txikitze garbia</b>	<b>1.555</b>	<b>10.058</b>
<b>Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran</b>	<b>39.916</b>	<b>29.858</b>
<b>Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren amaieran</b>	<b>41.471</b>	<b>39.916</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2024ko ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazioaren egoera-orria**  
**Gastu-Politiken araberako astuen aurrekontu-likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Gastu politika	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Konprometitutako kredituak	Aintzatetsitako obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak	Kreditu gerakinak
13	Segurtasuna eta mugikortasuna	755	159	914	793	784	738	45	130
15	Etxebizitza eta hirigintza	3.102	14.249	17.351	12.531	7.196	6.867	329	10.155
16	Komunitate-ongizatea	8.155	100	8.255	8.056	8.006	6.474	1.532	249
17	Ingurumena	1.654	4.286	5.940	3.739	1.756	1.388	368	4.184
23	Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	7.904	4.016	11.918	10.739	9.854	9.279	575	2.064
24	Enpleguaren sustapena	1.711	1.907	3.619	3.129	2.439	2.088	351	1.180
31	Osasuna	287	26	313	176	158	124	34	155
32	Hezkuntza	243	222	465	407	365	359	6	100
33	Kultura	8.029	921	8.949	8.464	7.901	7.585	315	1.049
34	Kirola	3.572	1.149	4.721	4.416	4.208	4.011	196	513
43	Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	631	39	670	569	563	480	83	107
44	Garraio publikoa	474	0	474	469	464	426	38	10
45	Azpiegiturak	5.999	1.153	7.152	6.832	5.484	4.274	1.210	1.668
49	Beste jarduketa ekonomiko batzuk	925	445	1.370	707	586	533	53	784
91	Gobernu-organoak	1.059	11	1.070	899	881	869	12	189
92	Zerbitzu oroikorrak	17.366	(256)	17.110	15.994	15.780	15.696	85	1.331
93	Finantza- eta zerga-administrazioa	664	1	665	477	469	456	13	196
	<b>Guztira</b>	<b>62.530</b>	<b>28.428</b>	<b>90.958</b>	<b>78.397</b>	<b>66.894</b>	<b>61.647</b>	<b>5.245</b>	<b>24.064</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2024ko ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazioaren egoera-orria**  
**Gastuen aurrekontu-likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kap	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Konprometitutako kredituak	Aintzatetsitako obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak	Kreditu gerakinak
I	Langile-gastuak	25.797	1.543	27.340	26.430	25.589	25.565	24	1.750
II	Erosketak eta gastuak	29.270	1.960	31.230	29.529	26.449	22.174	4.274	4.782
III	Finantza-gastuak	90	6	96	81	80	80	0	16
IV	Transferentzia arruntak	3.574	1.392	4.966	4.030	4.031	3.752	278	936
VI	Inbertsioak	2.846	23.171	26.017	17.498	9.916	9.284	632	16.100
VII	Kapital-transferentziak	299	291	590	212	212	186	26	378
VIII	Finantza-aktiboak	250	65	315	213	213	202	11	102
IX.	Finantza-pasiboak	404	0	404	404	404	404	0	0
	<b>Guztira</b>	<b>62.530</b>	<b>28.428</b>	<b>90.958</b>	<b>78.397</b>	<b>66.894</b>	<b>61.647</b>	<b>5.245</b>	<b>24.064</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio bateratuaren egoera-orrria**  
**Diru-sarrerren aurrekontu-likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aintzatetsita ko eskubideak	Baliogabet zeak	Aintzatetsita ko eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia	Bildu gabeko eskubideak	Aurreikuspen desbideraketa
I	Zuzeneko zergak	13.494	0	13.494	14.164	96	14.068	13.359	709	574
II	Zeharkako zergak	600	0	600	1.234	108	1.126	1.026	100	526
III	Tasak eta bestelako	11.419	0	11.419	11.976	269	11.707	9.627	2.080	288
IV	Transferentzia	35.982	2.057	38.039	38.588	1.811	36.777	36.081	696	(1.262)
V	Ondare-sarrerak	187	0	187	1.199	1	1.198	1.197	1	1.011
VI	Inbertsioak	540	(490)	50	364	0	364	364	0	314
VII	Kapital-	65	847	912	304	0	304	168	136	-608
VIII	Finantza-aktiboak	243	25.954	26.257	143	0	143	143	0	(26.113)
IX	Finantza-pasiboak	0	60	0	0	0	0	0	0	0
	<b>Guztira</b>	<b>62.530</b>	<b>28.428</b>	<b>90.958</b>	<b>67.972</b>	<b>2.285</b>	<b>65.687</b>	<b>61.965</b>	<b>3.722</b>	<b>(25.270)</b>

**BASAURIKO UDALA**  
2024ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazio-egoera  
Aurrekontu bateratuaren emaitza  
(milaka eurotan adierazita)

	Aintzatetsitako eskubide garbiak	Aintzatetsitako obligazio garbiak	Aurrekontu-emaitza
Eragiketa korranteak	64.875	56.149	8.727
Kapital-eragiketak	668	10.127	(9.460)
<b>Eragiketa ez-finantzarioak guztira</b>	<b>65.543</b>	<b>66.276</b>	<b>(733)</b>
Finantza-aktiboak	143	213	(70)
Finantza-pasiboak	0	404	(404)
<b>Finantza eragiketak guztira</b>	<b>143</b>	<b>617</b>	<b>(474)</b>
<b>Ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratua</b>			<b>(1.207)</b>

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

#### 1. Taldeko entitateak

##### a) Entitate nagusia. Identifikazioa

Basauriko Udala da Udalak berak eta bere menpeko entitate guztiek osatzen duten taldeko Entitate Nagusia —jarraian datorren atalean aipatzen eta deskribatzen dira—. Lurralde-entitatea den aldetik, Basauriko udalerrian egikaritzen ditu bere eskumenak. Udalerrri horrek 40.548 biztanle zituen 2024ko abenduaren 31n, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dago kokatuta (zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bilbo hiriburutik oso hurbil).

Basauriko Udalarenak toki-erakunde berezko jarduerak dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeei aplikatzea dagokion lege-araudiaren arabera. Erakundearen diru-sarrera nagusiak dira Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako transferentzia arruntak eta erakundeak berak kudeatzen dituen zergak eta tasak.

Oinarrizko antolakuntza-egitura, maila politikoan eta administratiboan, edozein toki-erakundek eduki ohi duen da. Udalbatzak 21 zinegotzi ditu, eta dauden informazio-batzordeak, funtsean, Udala osatzen duten arloenak dira.

Urteko kontu bateratuak prestatzeari begira, talde bat dagoela ulertuko da, baldin eta entitate nagusiak mendeko erakunde bat edo gehiago baditu eta haien gaineko kontrola badu, zuzenean edo zeharka. Bateratze-perimetroa, bai eta taldearen urteko kontu bateratuak egiteko aplikatutako irizpideak ere, hurrengo puntuetan azaltzen dira.

##### b) Mendeko entitateak

Urteko kontu bateratuak formulatzeko arauekin bat, honako hauek dira Basauriko Udalaren menpeko entitateak:

##### Erakunde autonomoak

Kultur Basauri  
Basauri Kirolak  
Basauriko Udal Euskaltegia  
Etxe Maitia, komunitate- eta egoitza-laguntzarako Udal Zentroa

##### Sozietate publikoak

Basauri-Etxebarri Behargintza SL  
Bidebi-Basauri SL

Udalak % 87ko partaidetza du lehenengoaren kapital sozialean (gainerako % 13 Etxebarriko Udalari dagokio), eta % 100ekoa bigarrean.

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

#### c) Baterakuntzan sartzeko entitateak

Aurreko atalean zerrendatutako entitate guztiak kontu-baterakuntzan sartu dira, integrazio globalaren metodoaren bitartez lau organismo autonomoen kasuan, eta, baliokidetasunean jartzeko prozeduraren bitartez, mendeko bi merkataritza-sozietateen kasuan (batetik, taldearen eragiketa-bolumena aintzat hartuta garrantzi ekonomiko eskasa dutelako; eta, bestetik, beren kontabilitatearen merkataritza-izaera dela eta).

#### d) Baterakuntzatik baztertzeko entitateak

Aurreko atalean adierazi moduan, ez dago bateratze kanpo utzitako entitaterik. Interes handikoak ez zirenez, taldeko entitate batzuk kanpoan gera zitezkeen —merkataritza-sozietateak, esaterako—, baina baliokidetzan jartzeko prozeduraren bidez haiek ere sartzea erabaki da, urtez urte ondare-balio garbian dituzten aldaketak hobeto islatzeko.

#### e) Taldeko entitateen interes adierazgarria

Izaera mugatzailekun gastu-aurrekontua duten entitateen kasuan garrantzi erlatiboaren zenbateko adierazgarritzat hartuko da aitortutako obligazio garbien zenbateko osoa. Merkataritza-sozietateen kasuan, berriz, zenbatespen-izaerakun gastu-aurrekontua daukatenez, ekitaldiko ustiapen-gastuen zenbateko osoa hartuko da kontua (milaka eurotan):

Entitatea	Magnitudea	Zenbatekoa	%
Udala	Aitortutako obligazioak	63.092	82,3
Kultur Basauri	Aitortutako obligazioak	3.686	4,8
Basauri Kirolak	Aitortutako obligazioak	2.982	3,9
Basauriko Udal Euskaltegia	Aitortutako obligazioak	1.871	2,4
Etxe Maitia egoitza	Aitortutako obligazioak	3.427	4,5
Behargintza Basauri-Etxebarri SL	Ustiapen-gastuak	1.285	1,7
Bidebi Basauri SL	Ustiapen-gastuak	316	0,4
<b>Guztira</b>		<b>76.659</b>	<b>100,0</b>

#### 4. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

##### a) Irudi leiala

Urteko kontu bateratuak Basauriko Udalaren, erakunde autonomoen eta mendeko sozietate publikoen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira, eta bateratze-arauen eta indarrean dagoen legediaren arabera aurkezten dira, ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontuaren betearazpenaren eta talde bateratuaren emaitzen irudi leiala isla dezaten.

Memoria honetan jasotako aurrekontu-izaerako informazioak datu bateratuak biltzen ditu, Udalarenak eta haren erakunde autonomoenak; aitzitik, ez ditu jasotzen Udalaren

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

menpeko sozietateenak, zeinek ez baitute aurrekontu-likidaziorik aurkezten (merkataritza-izaera dutelako).

b) Informazioa alderatzea

Ez da gertatu urteko kontuak erkatzea edo urteko kontu bateratuen egitura aldatzea eragotzi duen arrazoirik edo motiborik —Bizkaiko tokiko sektore publikoaren esparruan urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onartzen dituen 138/2022 Foru Dekretuak zehazten ditu balizko arrazoi horiek—.

c) Akatsen zenbaketa eta zuzenketa egiteko irizpideetan egindako aldaketen arrazoiak eta horien eragina urteko kontu bateratuetan

Urteko kontu bateratuak 2024ko ekitaldiaren hasieratik aplikatzea zegoion bateratze-arauen arabera prestatu dira. Arau horiek bat datoz Basauriko Udalak urteko bere kontu bateratuen borondatezko formulazioan aurreko ekitaldietan aplikatutako bateratze-irizpideekin.

Era berean, ekitaldian ez da egon aurreko urteetako irizpide-aldaketarik edo aurreko akats nabarmenik zuzendu beharrik.

d) Kontabilitateko zenbatespenetan egindako aldaketei buruzko informazioa, horiek adierazgarriak direnean

2024ko ekitaldian ez da izan aldaketa esanguratsurik egindako kontabilitate-balioespenak egiterakoan.

e) Bateratze perimetroko entitateen arteko eragiketak

Bateratze-perimetroko erakunde bakar batek ere ez ditu bere kontuak ixten kontu bateratu hauena ez den beste data batean. Beraz, ez ekitaldi honetan ez aurrekoetan, ez da egon entitateen artean egokitu beharreko eragiketarik —Bizkaiko tokiko sektore publikoaren esparruan urteko kontu bateratuak formulatzeko araudiaren 14. artikuluan jasotzen dira horretarako inguruabarrak—.

f) Memoria bateratuaren edukia

Memoriaren edukian ez dira sartzzen Bizkaiko toki-erakundeen urteko kontu bateratuen eredian jasotako oharretako batzuk, dela edukirik ez daukatelako, dela edukia ez delako esanguratsua.

Hona hemen baztertutako oharren zerrenda: Talde anitzeko entitateak eta elkartuak (2. zk.), Entitateen azpitaldeei buruzko informazioa (3. zk.), Negozio-konbinazioak eta enpresak berregituratzeko eragiketak (7. zk.), Baterakuntzarako merkataritza-funtsa (8. zk.), Baterakuntzaren diferentzia negatiboa (9. zk.), Kanpoko bazkideak (10. zk.), Taldeko entitateetako partaidetzaren portzentajea aldatzea (11. zk.), eta Talde anitzeko

## **BASAURIKO UDALA**

### **Memoria bateratua**

erakundeei dagozkien partidak (12. zk.).

#### **5. Kontabilizazio eta balioespen arauak**

##### a) Baterakuntzarako merkataritza funtsa eta diferentzia negatiboa

Merkataritza-funtsak, erosketa-datan, taldeko erakundeen partaidetza eskuratzeko kostuaren soberakina adierazten du, eragiketan eskuratutako aktibo garbi identifikagarrien arrazoizko balioaren gainean.

Merkataritza-funtsa ez da amortizatzen; aitzitik, urteko balio-narriaduraren probak egiten dira, eta, hasierako aintzatespenaren ondoren, kostua ken narriaduragatiko galera metatuak balioesten dira.

Merkataritza-funtsaren narriaduragatiko balio-zuzenketak gastu gisa kontabilizatzen dira ondare-emaitza ekonomikoaren kontuan, eta ez dira itzultzen hurrengo ekitaldietan.

Basauriko Udalaren taldea 1993ko ekitalditik sendotzen ari da, eta ez da merkataritza-funtsik sortu, ez eta finkatze-diferentzia negatiborik ere.

##### b) Bateratze perimetroan sartutako entitateen arteko transakzioak

Bateratze perimetroan sartutako erakundeen arteko eragiketak Basauriko Udalak bere mendeko erakundeei beren jarduerak finantzatzeko edo ustiapen-defizita finantzatzeko emandako transferentzia eta dirulaguntzei dagozkie.

Integrazio globalaren metodoaren bidez finkatzeko irizpideen arabera, ekitaldian zehar udal-erakunde autonomoei emandako transferentziak eta dirulaguntzak ezabatu egiten dira diru-sarreraren eta gastuen partidetatik, eta emaitza garbia zero izango da.

##### c) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak balioesteko, kontuan hartu da eskuratzeko prezioa edo ekoizpen-kostua. Doan eskuratutako ondasunak izan direnean, eskuratzeko unean ondasun horiek zeukaten benetako balioa da eskuratzeko prezioa.

1993ko urtarrilaren 1a baino lehenago erantsitakoak balioetsita daude jada, tasazio-erakunde independente bateko perituek merkatuko balioaren arabera egindako estimazio baten arabera.

Hasieran aktibo bezala onartzen badira ere, ibilgetu materialaren elementuak kostuaren arabera balioesten dira, ostean pagatutakoa aintzat hartuta, eta metatutako amortizazioa eta balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta.

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

Amortizazioaren mende dauden aktiboak berrikusi egiten dira inguruabarrak aldatu eta, horren eraginez, gertatu ahal bada kontabilitate-balioa ezin berreskuratzea. Balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak egingo dira aktiboaren balio berreskuragarria (arrazoizko balioa) txikiagoa denean amortizazioaren balio garbia baino.

Handitze-, eraberritze- edo hobetze-kostuak aktibora gehitzen dira, ondasunaren balio erantsi gisa, ondasun horren edukiera edo produktibitatea handitzea, edota ondasunaren bizitza baliagarria luzatzea badakarte. Konponketa, ikuskapen edo zaharberritze handiengatiko kostuak aktibatu eta amortizatu egiten dira ondasunen bizitza baliagarrian zehar.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak (lursailak salbu) sistematikoki amortizatzen dira, metodo linealaren bidez, elementu bakoitzaren bizitza baliagarri estimatuaren arabera.

	Urteak
Eraikinak	50
Azpiegiturak	40
Instalazio teknikoak eta makineria	8
Altzariak	8
Informazioa prozesatzeko ekipoa	5
Garraio-elementuak	5

d) Higiezineta inbertsioak

Errentak, gainbalioak edo biak lortzeko higiezinak dira: errentamenduan eman, edo besterendu egiten dira, baina horietako bat ere ez da erakundearen xedea. Hemen daude, era berean, ibilgetutzat jo ezin daitezkeen guztiak ere. Ibilgetu materiala balioesteko aurreko atalean jasotako irizpideak aplikatzen zaizkie inbertsio hauei ere.

e) Lurzoruaren ondare publikoa

Lurzoruaren udal ondarean sartutako ondasunak, ondarezko izaera izanik, hiri-lurrean edo lur urbanizagarrian kokatutako lur-sailak eta eraikinak dira. Horien erosteko edo eraikitzekeo kostua islatzen du aurrekontuak. Doan eskuratu badira, hori gertatu den uneko salmenta-balioaren arabera kontabilizatuko dira.

Hasieran aktibo bezala onartzen badira ere, ibilgetu materialaren elementuak kostuaren arabera balioesten dira, ostean pagatutakoa aintzat hartuta, eta metatutako amortizazioa eta balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta.

Amortizazioaren mende dauden aktiboak berrikusi egiten dira inguruabarrak aldatu eta, horren eraginez, gertatu ahal bada kontabilitate-balioa ezin berreskuratzea. Balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak egingo dira aktiboaren balio berreskuragarria (arrazoizko balioa) txikiagoa denean amortizazioaren balio garbia baino.

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

Lurzoruaren udal ondarearen barruan dauden ondasunak metodo linealaren bidez amortizatuko dira, hain zuzen, ibilgetu materialaren barne sartutako ondasunen bizitza baliagarriaren arabera.

f) Ibilgetu ukiezina

Diruzkoa ez den balioespen ekonomikoaren xede izan daitezkeen, eta itxura fisikorik ez duten ondasun ukiezinak eta eskubideak dira. Denboran zehar irauten dute, ondasunak edota zerbitzuak ekoizteko erabiltzen dira, edota erakundearen baliabide-iturri dira. Identifikagarriak ere badira.

Ibilgetu materialaren barruko ondasunak balioesteko erabilitako irizpideen arabera balioetsiko dira ondasun hauek ere.

Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatu da, honako bizitza baliagarri honen arabera:

	<u>Urteak</u>
Informazio-prozesuetarako ekipoen softwarea	5
Bestelako ibilgetu ez-materiala	10

g) Aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak

Finantza-tresnetatik eratortzen dira finantza-aktibo eta -pasiboak: alderdietako bati eskubide bat ezarri (finantza-aktiboa), eta besteari obligazio bat (finantza-pasiboa) edo ondare garbiaren osagai bat (ondare-tresna) esleitzen diote. Horien sailkapena, balioespena eta kontabilizazioa, berauek mantentzen dituen edota jaulkiak izan ziren xedea aintzat hartuta egiten da, batik bat.

Finantza-Aktiboak:

Finantza-aktiboak dira eskudirua; beste erakunde baten kapital edo ondare garbi tresnak; hirugarren batengandik eskudirua edota bestelako finantza-aktiboa jasotzeko eskubidea; edota, erakundearentzat ustez onuragarriak diren baldintzetan, hirugarren batekin finantza-aktiboak edo -pasiboak trukatzeko eskubidea. Finantza-aktiboak balioesterakoan, honako sailkapen honi jarraitzen zaio:

- Kobratzeke dauden kredituak eta partidak.
- Epemugara arte mantendutako inbertsioak.
- Eraitzen aldaketak izan dituzten finantza-aktiboak (arrazoizko balioarekin).
- Taldeen, multitaldeen eta horien kide diren erakundeen ondarean egindako inbertsioak.
- Salmentara bideratu ahal diren aktiboak.

## **BASAURIKO UDALA**

### **Memoria bateratua**

Balantzean finantza-aktiboa islatuko da baldin eta obligazio-iturria bada, hura formalizatzeko kontratu edo itunaren klausulen arabera.

Kobratzeko dauden kreditu eta partiden, epemugara arte mantendutako inbertsioen eta emaitzetan trukatzekoak diren (arrazoizko balioan kontabilizatutako) finantza-aktiboen hasierako balioespena, horien arrazoizko balioan egingo da; kontrako frogarik ezean, transakzioaren prezioa izango da arrazoizko balio hori.

Hala ere, epe luzera kobratzekoak diren eta kontratuzko interes-tasarik ez duten partidak, hasiera batean, beren balio nominalean balioetsiko dira; diruz lagundutako interesekin epe luzerako emandako maileguak, berriz, emandako zenbatekoan balioetsi ahal dira.

Ekitaldia ixtean egingo dira balioespenetan egin beharreko zuzenketak. Halakoak egin behar izaten dira etorkizunera estimatutako eskudiru-fluxuak gutxitu edo atzeratu ahal dituzten gertaerak ematen direnean (adibidez, zordunaren kaudimengabezia).

Taldeko eta talde anitzeko erakundeen, eta horien kide diren erakundeen ondarean egindako inbertsioen kasuan, hasierako balioespena kostuarena izango da; gerora, kasua denean, kostu horri kenduko zaio balio-narriaduragatik zuzenketen zenbateko metatua, baldin eta argi badago inbertsioaren kontabilitate-balioa ezin izango dela berreskuratu.

Salmentarako finantza-aktiboak, beren aldetik, arrazoizko balioaren arabera balioetsiko dira hasiera batean. Arrazoizko balio hori, kontrako frogarik ezean, transakzioaren prezioa izango da. Gerora, unean uneko arrazoizko balioaren arabera balioetsiko dira, eta ondare garbian zuzenean erregistratuko dira bertan ematen diren aldaketak.

Aktibo horiei balioa esleitu behar zaienean (besterentzeko, edota beste edozein arrazoi tarteko), talde homogeneo bakoitzerako batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da.

Ekitaldiaren amaieran, gutxienez, beharrezko balio-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta froga objektiboren batek islatzen badu saltzeko dauden finantza-aktiboen balioa narriatu egin dela, etorkizunerako aurreikusitako eskudiru-fluxuak gutxitzea edo atzeratzea eragin duten gertakarien ondorioz.

Azkenik, erakundeak finantza-aktibo baten edota horren zati baten baja erregistratuko du hura iraungitzen denean, edota finantza-aktibo horrek sortutako eskudiru-fluxuaren gaineko eskubideak zein haren jabetzari lotutako arriskuak eta abantailak eskualdatu direnean.

#### *Finantza-Pasiboak:*

Kostu amortizatuko finantza-pasiboen kategorian sailkatzen dira finantza-pasibo guztiak. Honako hauek barne hartzen dituzte:

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

- Ohiko jardueratik eratorritako eragiketengatik ordaindu beharreko zorrak eta partidak.
- Zorrak kreditu-erakundeekin.
- Jaulkitako balore negoziagarrietan gauzatutako zorrak.
- Ordaindu beharreko beste zor eta partida batzuk.

Arau orokor gisa, epemuga laburrera ordaintzekoak izan, eta kontratu-tasarik ez duten zorrak eta partidak, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, bai hasieran, bai gerora. Balioespen berdina egingo da epemuga luzera ordaintzekoak izan, eta diruz lagundutako interesak dituztenekin ere, baldin eta fluxuak ez eguneratzearen eragina ez bada esanguratsua.

Edozelan ere, jasotako fidantza eta gordailuak, jasotako zenbatekoarekin balioetsiko dira beti.

Finantza-pasiboak, kontratuan edo erabakian xedatutako datan aintzatetsiko dira kontabilitatean, eta erakundeak data horretatik aurrera hartuko du obligazioa. Kreditu-polizarekin formalizatutako diruzaintza-eragiketetan, obligazioa jaioko da funts-baliabideak jaso ahala. Ez-korrontetzat sailkatuko dira baldin eta urtebetetik gorako epemuga badaukate; eta korrontetzat, berriz, horien epemuga hortik beherakoa denean.

Arau orokor gisa, finantza-pasibo baten edo horren zati baten baja erregistratuko da hartutako obligazioa bete edo bertan behera geratu denean. Kontabilitate-balioaren eta ordainean emandakoaren artean alderik balego, dagokion ekitaldiaren emaitzan aintzatetsiko da alde hori.

#### h) Sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak erregistratuko dira sortzapen-printzipioari jarraituta, eta, beharrezkoa denean, bien arteko korrelazio-printzipioari jarraituta.

Aurrekontuari dagokionez, diru-sarrerak eta gastuak aurrekontu-likidazioan jasoko dira dagozkion eskubideak eta obligazioak aitortzeko administrazio-egintza ematen den unean.

Arau orokor gisa, diru-sarrerak erregistratuko dira kontraprestazioaren arrazoizko balioan, eta entregatutako ondasunengatiko zein emandako zerbitzuengatiko zenbatekoa izango dute, ken itzulketak, deskontuak eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga (hala badagokio).

Erakundeak diru-sarreraren aintzatespena egingo du, baldin eta horien zenbatekoa fidagarritasunez balioetsi ahal bada. Litekeena da etorkizuneko etekin ekonomikoak erakundera heltzea, eta jarduera bakoitzerako baldintza espezifikoak beteko dira, jarraian zehaztutako moduan.

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

Zergen kasuan, diru-sarrera eta aktiboa aintzatetsiko dira zerga-egitatea eman, eta aktiboa aitortzeko irizpideak betetzen direnean. Isun eta zehapenen kasuan, aitortuko dira horiek kobratzeko eskubidea sortzen denean.

Langile-gastuak eta kudeaketa arruntari dagozkion beste gastu batzuk emaitzen kontuan aintzatetsiko dira obligazioa sortzen den unean, kontuan hartu gabe hortik ondorioztatutako fluxua noiz hasiko den.

#### i) Hornidurak eta kontingentziak

Hornidura bat aitortzen da erakundeak iraganeko gertaera baten ondorio den obligazio bat duenean (legala, kontratuzkoa edo inplizitua), eta horrek, ziurrenik, modu fidagarrian estimatu daitezkeen baliabide batzuk entregatzea ekarriko du.

Beharrezkoak izanez gero, hornidurak obligazioa likidatzeko beharrezkoak izatea espero diren ordaintzen balio eguneratuaren arabera balioetsiko dira, antzeko epemuga batengatik zor publikoaren tasaren baliokidea den deskontu-tasan eguneratuta. Eguneratzearen ondoriozko hornidura-doikuntzak finantza-gastutzat hartzen dira, jakinarazi ahala. Epemuga urtebetetik beherakoa edo urtebetekoa denean eta eragin finantzarioa esanguratsua ez denean, ez dira deskontatzen.

Ekitaldi-itxieran, hornidurak berrikusi eta doitu egiten dira, hala badagokio, une honetan dagoen zenbatespenik onena islatzeko. Dagoeneko egokiak edo probableak ez direnean, ekitaldiko sarrera-kontuan itzultzen dira, kontrapartidarekin.

#### j) Transferentziak eta dirulaguntzak

##### *Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak:*

Itzulgarriak diren diru-laguntzak pasibo bezala erregistratuko dira, itzulgarriak ez direla jotzeko baldintzak betetzen dituzten arte. Itzulgarriak ez diren diru-laguntzak, berriz, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa erregistratuko dira, eta diru-laguntzatik ondorioztatutako gastuekin oinarri sistematiko eta arrazional batean korrelazioan jarritako diru-sarrera gisa aintzatetsiko dira.

Ibilgetu materiala eskuratzeari lotuta egon, eta itzulgarriak ez diren diru-laguntzak, beren aldetik, ekitaldiko diru-sarreratzat hartuko dira, dagozkion aktiboen amortizazioa ematen den neurrian, edota, hala badagokio, salmenta, balio-narriaduragatiko zuzenketa edota balantzean baja ematen denean. Beste alde batetik, itzulgarriak ez diren, eta gastu espezifikoari lotuta dauden diru-laguntzak galera eta irabazien kontuan aintzatetsiko dira, dagozkion gastuak sortzen diren ekitaldi berean.

## **BASAURIKO UDALA**

### **Memoria bateratua**

#### *Emandako transferentziak eta dirulaguntzak:*

Emandako transferentziak eta diru-laguntzak gastu gisa kontabilizatuko dira, horiek jasotzeko baldintzak bete direla egiaztatzen den unean.

Ekitaldia ixteko unean transferentzia edo diru-laguntza horiek jasotzeko aurreikusitako baldintzaren bat bete gabe egon, baina etorkizunean beteko den zalantzarik ez badago, dagozkion zenbatekoen pareko zuzkidura emango da, gastua islatuta gera dadin.

#### **6. Doikuntzak eta ezabaketak**

Udalaren eta erakunde autonomoen kontabilitate-kontuetako saldoak eranstekeo prozesua amaitu ondoren, zenbait doikuntza eta ezabaketa egin dira, kontu bateratu hauek formulatzeko zenbatekoak zehazteko.

Urteko kontu bateratuak formulatzeko egindako kontabilitate-doikuntzak eta -ezabaketak honako taula honetan jaso dira (milaka eurotan adieraziak):

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

		<b>BATERATZE-IDAHPENAK</b>	
		<b>2024</b>	
<b>Kontu zk.</b>		<b>DEBE</b>	<b>HABER</b>
<b>Atxikitako / atxikitze bidean dagoen ondarea ezabatzea</b>			
1011	Jasotako ondarea. Ondasun eta eskibideen ekarpena	39.993	
2940	Partaidetzen epe luzeko balio-narriadura	12.841	
2500	Partaidetzak, epe luzera		39.993
1200	Aurreko ekitaldietako emaitzak		12.623
6960	Partaidetzen epe luzeko balio-narriaduraren ondoriozko		217
<b>Udala-erakunde autonomoak transferentziak ezabatzea</b>			
1310	Ibilgetu ez-finantziarioa eta salmenta-egoeran dauden ak	20	
7500	Erakunde jabeetatik jasotako transferentzia arruntak	7.650	
7510	Erakunde jabetik gastuetarako jasotako dirulaguntzak	515	
7530	Ibilgeturako dirulaguntzak, emaitzari egotzitakoak	3	
4010	Aurrekontu-hartzekodunak. Kudeaketa-eragiketak.	20	
6501	Ustiapenagatiko transferentziak eta dirulaguntzak		8.165
1200	Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak		23
4310	Kudeaketa-eragiketak. Sarrera zuzena.		20
<b>Behargintza, baliokidetzan jartzea</b>			
2501	Partaidetza taldeko sozietateetan (% 87)	559	
1190	Sozietateak baliokidetzan jartzea, erreserbak		485
7999	Sozietateak baliokidetzan jartzea, emaitzak	19	
1200	Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak		93
<b>Bidebi, baliokidetzan jartzea</b>			
2501	Partaidetza taldeko sozietateetan (% 100)		21
1190	Sozietateak baliokidetzan jartzea, erreserbak	11	
7999	Sozietateak baliokidetzan jartzea, emaitzak	10	
		<b>61.640</b>	<b>61.640</b>

Beste alde batetik, adierazten dugu ez dagoela ez abal ez berme esanguratsurik, taldearen bateratze-eremua osatzen duten entitateen artean.

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**13. Baliokidetzan jarritako entitateetako partaidetzak**

*Epe luzerako finantza-inbertsioak taldeko erakundeetan* epigrafeko saldoa sozietate publikoetako partaidetzari dagokio, eta Behargintza Basauri-Etxebarri SLren eta Bidebi Basauri SLren urteko kontuek ematen duten kontabilitate-balio garbiaren baliokidea da, 2024ko abenduaren 31ko datarekin. Hona hemen xehe-xehe azalduta:

	<b>Milaka eurotan</b>	
	<b>Behargintza</b>	<b>Bidebi</b>
Kontabilitate-balio teorikoa	646	39
Partaidetzaren %	% 87	% 100

2024an, Bidebi Basauri, SLren Batzar Nagusiak erabaki du 566 milaka euroko ekarpena egitea aurreko urteetan egindako eta emaitzetara egozteko dauden udal transferentzia eta diru-laguntzen zenbatekoaren kontura, sozietatearen ondare garbia berrorekatzeko (2023ko ekitaldiaren amaieran, negatiboa zen).

Memoria honen 1 c) oharrean azaltzen denez, sozietate horiek taldearen parte dira, baina, garrantzi txikia dutenez, baliokid etasunean jartzeko metodoaren bidez sartzen dira kontu hauetan. Hain zuzen ere, talde bateratuko kide direnez, ez da beharrezkoa informazio ekonomiko-finantzariarik ematea, haien urteko kontuak, kontu hauexek bezala, Basauriko Udalaren Kontu Orokorrean sartuta baitaude.

Sozietate publiko bien 2024ko ekitaldiko urteko kontuak kanpoko auditoreek ikuskatu dituzte, eta 2025eko apirilaren 1ean eta martxoaren 31n, hurrenez hurren, aldeko iritzia eman dute.

**14. Balantzearen epigrafe nagusiak**

a) Ibilgetu materiala

Ekitaldian ibilgetu materialean egondako mugimenduak hauek izan dira(milaka eurotan):

	<b>Lurrak</b>	<b>Eraikinak</b>	<b>Azpiegiturak</b>	<b>Ondare historikoa</b>	<b>Bestelako ibilgetuak</b>	<b>Aribideko ibilgetua</b>	<b>Guztira</b>
<b>KOSTUA</b>							
<b>Hasierako saldoa</b>	36.164	59.609	63.985	1.081	28.124	8.222	197.185
Sarrerak	1.185	1.049	1.283	0	297	8.600	12.414
Intsuldaketak	1.951	2.739	544	0	3.394	(14.236)	(5.608)
Irteerak	0	0	0	0	(30)	0	(30)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>39.300</b>	<b>63.397</b>	<b>65.812</b>	<b>1.081</b>	<b>31.785</b>	<b>2.586</b>	<b>203.961</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

<b>AMORTIZAZIOA</b>							
<b>Hasierako saldoa</b>	0	25.618	11.017	0	25.971	0	62.606
Hornidurak	0	1.222	1.463	0	712	0	3.151
Irteerak	0	0	0	0	(30)	0	(30)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>26.840</b>	<b>12.480</b>	<b>0</b>	<b>26.653</b>	<b>0</b>	<b>65.973</b>
<b>KONTABILITATE BALIO GARBIA</b>							
<b>Hasierakoa</b>	<b>36.164</b>	<b>33.991</b>	<b>52.968</b>	<b>1.081</b>	<b>2.153</b>	<b>8.222</b>	<b>134.579</b>
<b>Amaierakoa</b>	<b>39.300</b>	<b>36.557</b>	<b>53.332</b>	<b>1.081</b>	<b>5.132</b>	<b>2.586</b>	<b>137.988</b>

2024ko abenduaren 31n, ibilgetu materialean amortizatu gabeko elementuak daude, 17 milioi euro inguruko jatorrizko kostuarekin, baina erabiltzen ari dira oraindik ere.

Sarreraren artean, *Lursailak* atalean 1.162 milaka euroko doako lagapena dago; *Eraikuntzak* atalean, 687 mila euroko itzulketa, eta, *Azpiegiturak eta Beste ibilgetua* atalean, inbentarioagatiko bi aktibazio, 887 eta 94 milaka eurokoak, hurrenez hurren.

Halaber, eskualdatze garbiak egin dira ibilgetu materialetik Lurzoruaren ondare publikora eta Ibilgetu ukiezinera, 3.967 eta 1.641 milaka euroko baliokoak, hurrenez hurren.

b) Lurzoruaren ondare publikoa

Ekitaldian egondako mugimenduak hauek izan dira (milaka eurotan):

	Lurrak	Eraikinak	Aribidean	Guztira
<b>KOSTUA</b>				
<b>Hasierako saldoa</b>	6.225	435	0	6.660
Sarrerak	0	0	0	0
Irteerak	3.967	0	0	3.967
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>10.192</b>	<b>435</b>	<b>0</b>	<b>10.627</b>
<b>AMORTIZAZIOA</b>				
<b>Hasierako saldoa</b>	0	170	0	170
Hornidurak	0	9	0	9
Irteerak	0	0	0	0
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>179</b>	<b>0</b>	<b>179</b>
<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>				
<b>Hasierakoa</b>	<b>6.225</b>	<b>265</b>	<b>0</b>	<b>6.490</b>
<b>Amaierakoa</b>	<b>10.192</b>	<b>256</b>	<b>0</b>	<b>10.448</b>

c) Higiezineta inbertsioak

Ekitaldian egondako mugimenduak hauek izan dira (milaka eurotan):

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

	Lurzoruak	Eraikinak	Guztira
<b>KOSTUA</b>			
Hasierako saldoa	2.782	4.942	7.724
Sarrerak	0	0	0
Irteerak	0	(60)	(60)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>2.782</b>	<b>4.882</b>	<b>7.664</b>
<b>AMORTIZAZIOA</b>			
Hasierako saldoa	0	988	988
Hornidurak	0	98	98
Irteerak	0	(12)	(12)
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>0</b>	<b>1.074</b>	<b>1.074</b>
<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>			
Hasierakoa	2.782	3.954	6.736
<b>Amaierakoa</b>	<b>2.782</b>	<b>3.808</b>	<b>6.590</b>

Epigrafe honetan sartzen dira Solarteko aparkalekuko partzelak, erosteko aukera ematen duen alokairura bideratuak, eta Lapatzako orubea, trenbidekoa. 2024an 2 garaje-partzela besterendu dira, aukera horren bidez, eta 8 mila euroko emaitza negatiboa izan da.

d) Ibigetu ukiezina

Hona hemen ekitaldian kontu hauetako mugimenduak, milaka eurotan:

	Aplikazio informatikoak	Bestelako elementuak	Aribidean	Guztira
<b>KOSTUA</b>				
Hasierako saldoa	3.444	2.181	59	5.684
Sarrerak	1	12	59	72
Intsuldaketak	0	1.759	(118)	1.641
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>3.445</b>	<b>3.952</b>	<b>0</b>	<b>7.397</b>
<b>AMORTIZAZIOA</b>				
Hasierako saldoa	2.766	590	0	3.356
Hornidurak	184	71	0	255
Intsuldaketak	0	0	0	0
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>2.950</b>	<b>661</b>	<b>0</b>	<b>3.611</b>
<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>				
Hasierakoa	678	1.591	59	2.328
<b>Amaierakoa</b>	<b>495</b>	<b>3.291</b>	<b>0</b>	<b>3.786</b>

2024ko abenduaren 31n, erabat amortizatutako 2.939 milaka euro inguru jatorrizko kostua izan zuen ibilgetu materiala dago eta oraindik erabilgarri dago.

Halaber, Bestelako elementuen artean, Sarratuko lokal batzuen 75 urterako azalera-eskubideak kontabilizatu dira eta horiei emango zaien erabilera eguneko zentroarena eta etxebizitza komunitarioena izango da. Halaber, epigrafe honetan ere 1.759 milaka euro aktibatu dira, lokal horiek egokitzeko egindako obrak amaitzeari dagozkienak.

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

e) Epe laburreko zordunak

	2024	2023
Ohiko ekitaldian aitortutako zordunak	3.740	4.107
Itxitako ekitaldietan aitortutako zordunak	2.135	1.956
Zordun diren erakunde publikoak eta beste	1.090	923
Nominala, guztira	6.965	6.986
Kredituen balio-narriadura	(2.165)	(1.900)
<b>Balio garbia</b>	<b>4.800</b>	<b>5.086</b>

f) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Ekitaldia ixteko datan, **Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideen saldoa 41.472 milaka eurokoa da** (2023 ekitaldian, 39.916 milaka euro), kutxa-saldoei eta banku-erakundeetan erabilitako kontuei dagokie.

g) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste kontu batzuk

	2024	2023
Ezagututako obligazioengatiko hartzekodunak	5.048	4.690
Acreedores por facturas pendientes de aplicar y/o recibir	260	399
Beste erakunde batzuetako baliabideen hartzekodunak	753	750
Administrazio publikoak, kontzeptu fiskal eta sozialaren arabera	1.678	1.568
Beste hartzekodun batzuk	2.370	384
<b>Guztira</b>	<b>10.109</b>	<b>7.791</b>

2024ko ekitaldiaren *Beste hartzekodun batzuen* saldoan Udalkutxaren 2024ko likidazioaren emaitza sartu da. Emaitza hori negatiboa eta 1.784 milaka eurokoa izan da.

h) Ondare garbia

2024 urteko Ondare garbiaren partidetan izandako mugimenduak hurrengo taulan erakusten direnak izan dira (milaka eurotan):

	Ondarea	Entitate nagusiaren erreserbak eta aurreko emaitzak	Entitate bateratuen erreserbak eta aurreko emaitzak	Baliokidetzan jarritako entitateen erreserbak eta aurreko emaitzak	Entitate nagusiari egotzitako emaitzak	Egotzi gabeko dirulaguntzak
<b>Hasierako saldoa</b>	36.427	131.957	(87)	385	12.159	3.739
Doikuntzak	0	493	0	0	0	0
Aurreko ekialdetako emaitzak	0	12.070	1	88	(12.159)	0
Ekitaldiko emaitzak	0	0	0	0	6.506	0
Beste mugimenduak	0	869	0	0	0	204
<b>Amaierako saldoa</b>	<b>36.427</b>	<b>145.389</b>	<b>(86)</b>	<b>473</b>	<b>6.506</b>	<b>3.943</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

**15. Aurrekontuaren informazio bateratua**

a) Itxitako aurrekontuen obligazioak

Ekitaldiaren itxieran ordaintzeke dauden obligazioen zenbatekoa 217 mila eurokoa da, batez ere gastuen 4. kapituluko transferentzia arruntei dagozkienak.

b) Aurrerako ekitaldietako aurrekontuetara zamatzeko gastuen konpromisoak

Osoko Bilkurak onartutako eta itxieran indarrean dauden konpromiso-kredituak honako hauek dira (mila eurotan):

Deskripzioa	Konpromisoen egoera			
	2025	2026	2027	2028 eta hurrengoak
Telekomunikazioak	772	772	772	772
Kale garbiketa eta zabor bilketa	4.487	5.919	5.919	13.271
Etxe laguntzak	827	0	0	0
Eraikin publikoen garbiketa	2.949	2.949	2.828	0
Eguneko arreta zerbitzua	321	385	385	385
Etxebizitza komunitarioen zerbitzua	449	539	539	539
<b>Guztita</b>	<b>9.806</b>	<b>10.565</b>	<b>10.444</b>	<b>14.967</b>

i) Itxitako aurrekontuen ondorioz kobratzeko eskubideak

Jarraian, itxitako ekitaldietan kobratzeko dauden eskubideak eta urtean zehar izan duten mugimendua banakatzen dira, jatorrizko ekitaldien arabera sailkatuta (mila eurotan):

Jatorrizko ekitaldia	Hasiera	Eskubideak	Baliogabetzeak	Kobrantsa	Amaiera
Aurreko urteak	508	1	1	2	506
2016 urtea	10	0	0	1	9
2017 urtea	24	0	0	1	23
2018 urtea	24	0	0	1	23
2019 urtea	95	0	31	6	59
2020 urtea	178	0	2	17	159
2021 urtea	325	0	1	23	301
2022 urtea	1.000	0	22	494	484
2023 urtea	3.686	234	64	3.278	578
<b>Guztira</b>	<b>6.086</b>	<b>235</b>	<b>121</b>	<b>3.823</b>	<b>2.142</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

Halaber, ekitaldi itxietan kobratu beharreko zordunen diru-sarrerren kapituluen araberrako banaketa honako hau izango litzateke:

Capítulo	Hasiera	Eskubideak	Baliogabetzeak	Kobrantza	Amaiera
I. kapitulua	1.382	1	23	265	1.094
II. kapitulua	172	0	4	135	32
III. kapitulua	2.538	0	81	1.742	718
IV. kapitulua	1.728	234	13	1.651	298
V. kapitulua	1	0	0	1	0
VI. kapitulua	2	0	0	2	0
VII. kapitulua	27	0	0	27	0
VIII. kapitulua	0	0	0	0	0
IX. kapitulua	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.850</b>	<b>235</b>	<b>121</b>	<b>3.823</b>	<b>2.142</b>

j) Aurrerako ekitaldietako aurrekontuetara zamatzeko sarrerren konpromisoak

Ekitaldia ixtean, ez dago etorkizuneko aurrekontuetan sartzeko konpromisorik.

k) Aurrekontu mugatzailerik gabeko entitateen gastu eta sarrerren aurreikuspen egoeraren likidazioa

Jarraian, Behargintza Basauri-Etxebarri SLren eta Bidebi Basauri SLren mendeko 2024ko ekitaldiko aurrekontuak eskaintzen dira, kapituluka laburbilduta, milaka eurotan adierazita:

Behargintza Etxebarri-Basauri, S.L.

	Aurrekontua	Gauzatzea	Desbideratzea
<b>Gastuak:</b>			
Pertsonal gastuak	681	767	(86)
Erosketak eta kanpoko gastuak	521	485	36
Inbertsioak eta beste batzuk	0	33	(33)
<b>Gastual guztira</b>	<b>1.202</b>	<b>1.285</b>	<b>(83)</b>
<b>Sarrerak:</b>			
Ustiapenaren beste sarrerak	0	1	1
Transferentzia arruntak	1.202	1.171	(31)
<b>Sarrerak guztira</b>	<b>1.202</b>	<b>1.172</b>	<b>(30)</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

Bidebi Basauri, S.L.

	<b>Aurrekontua</b>	<b>Gauzatzea</b>	<b>Desbideratzea</b>
<b>Gastuak:</b>			
Pertsonal gastuak	202	205	(3)
Erosketak eta kanpoko gastuak	143	111	32
Inbertsioak eta beste batzuk	<b>345</b>	<b>316</b>	<b>29</b>
<b>Gastual guztira</b>			
<b>Sarrerak:</b>	127	48	(79)
Ustiapenaren beste sarrerak	218	258	40
Transferentzia arruntak	<b>345</b>	<b>305</b>	<b>(39)</b>

**16. Kontu bateratuetan eragin dezakeen bestelako informazioa**

Finantza-Aktiboak

Hona hemen balantzeko finantza-aktiboak eta 8 zenbakidun aitortze-arauaren kategoriak berdinkatzearen ondoriozko egoeraren laburpena, milaka eurotan:

	Epe luzeko finantza-aktiboak						Epe laburreko finantza-aktiboak					
	Inberstioak ondarean		Zorra adierazten duten baloreak		Inberstioak ondarean		Zorra adierazten duten baloreak		Inberstioak ondarean		Zorra adierazten duten baloreak	
	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Kredituak eta kobratu beharreko partidak	0	0	0	0	88	64	0	0	0	0	139	95
Inbertsioak taldeko erakundeetan	600	629	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-aktiboak salgai	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>600</b>	<b>629</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>88</b>	<b>64</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>139</b>	<b>95</b>

Finantza-Pasiboak

Hona hemen zorren saldoaren eta mugimenduen xehetasunak, milaka eurotan (berme errealik gabekoak dira zor horiek guztiak):

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

Erakundea	Printzipala	Likidatzeko urtea	Interesak	Hasierako saldoa	Gehikuntzak	Amortizazioak	Amaierako saldoa
B. Sabadell	4.037	31/12/2028	79	2.019	0	404	1.615
<b>Guztira</b>	<b>4.037</b>		<b>83</b>	<b>2.019</b>	<b>0</b>	<b>404</b>	<b>1.615</b>

Eta Finantza-Pasiboen sailkapena eta zorren kategoria berdinkatzearen arteko emaitza:

Kategorien araberako laburpena	Epe luzera						Epe laburrera					
	Obligazioak eta balio negoziagarria		Zorrak kreditu erakundeekin		Obligazioak eta balio negoziagarria		Zorrak kreditu erakundeekin		Obligazioak eta balio negoziagarria		Zorrak kreditu erakundeekin	
	2024	2023	2024	2023	2023	2022	2023	2022	2024	2023	2024	2023
K. Amortizatuko zorrak	0	0	1.211	1.615	0	0	0	0	404	404	1.535	1.533
Arrazoizko baliodun zorrak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>1.211</b>	<b>1.615</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>404</b>	<b>404</b>	<b>1.535</b>	<b>1.533</b>

Hornidurak eta kontingentziak

2024ko ekitaldia ixtean, esan behar da, egon litezkeen kontingentziei dagokienez, ez dela espero Erakundearentzat eragin ekonomikoa duen gertakari esanguratsurik edo garrantzitsurik, eta, beraz, ez dela kontzeptu horretarako kontabilitate-hornidurarik egin.

**17. Itxieraren ondorengo gertaerak**

Udalkutxaren 2024ko ekitaldiko behin betiko likidazioa 1.784 mila eurokoa izan da, zeinu negatiboarekin, eta kobrantza aurreratu gisa kontabilizatu da, kontzeptu horrengatik sortutako diru-sarrerak murriztuz, eta Foru Aldundiari 2025ean itzuliko zaio 2025eko martxotik abendura bitartean, erakunde horrek xedatutakoaren arabera.